

HERRIKO IRAKASLEAK, HEZKUNTZAREN BILAKAERAZ

·Zuek bai jakin!· Alfonso Cuesta 'Aldapa' ·Erreportajea: Geriatrikoko erregea

·Izerdi patsetan: Gorka Alarzia ·Boteprontoan: Aitor Lizarazu

Herri Aldizkaria

Otamotz

2009ko

ekaina

148. alea



“Eskerrik asko, Vanesa.

Nire bilobaren lehen hitza entzun ahal izan dut gaur.”

Aitor, 72 urte. Urretxu

“Gracias, Vanesa.

Hoy he podido escuchar la primera palabra de mi nieta”

Aitor, 72 años. Urretxu



Vanesa, GAESeko audioprotesista
Vanesa, audioprotesista de GAES

GAESen lan egiten dugunok, **60 urte** daramatzagu entzumen-arazoak konpontzen, profesional talde bikain bati esker. En **GAES** llevamos **60 años** solucionando problemas de audición **gracias** a un gran equipo de profesionales.

Areizaga, 4. URRETXU. Telf: 943 729 883

Entzumen azterketa egin ondoren, pila pakete bat oparituko zaio audifonoa daraman pertsona orori. Aukera hau uztailetik irailera bitartean egongo da.

Una vez realizada la revisión auditiva gratuita, regalamos un paquete de pilas a todos los usuarios de audífonos. Promoción válida de julio a septiembre

Zatoz eta ospatu gurekin gure Deitu eta eskatu ordua
ENTZUMENA DOAN AZTERTZEKO eta opari bat emango dizugu.



Ven a celebrar con nosotros nuestro 60 aniversario. Llama y reserva cita para tu **REVISIÓN AUDITIVA GRATUITA** y te obsequiaremos con un regalo.



Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldúa **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Herriko irakasleak, hezkuntzaren bilakaeraz
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Urretxuko igerilekura joateko ohiturarik ba al duzu?
Baldin baduzu, zer egiten duzu bertan?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Gure gomendioa**
- 16 Klik eta klik**
Iñaki Lizarralde
- 18 Zuek bai jakin!**
Alfonso Cuesta 'Aldapa'
- 22 Erreportajea**
Geriatrikoko erregea
- 25 Argazki zaharra**
- 26 Izerdi patsetan**
Gorka Alarzia
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Aitor Lizarazu



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Herriko irakasleak, hezkuntzaren bilakaeraz

Gizartea geroz eta konplexuagoa da eta, beraz, irakasleen lanak garai batean ez zituen zailtasunak ditu. Herriko hiru ikas-tetxeetako irakasle beteranoekin hitz egin dugu euren jardunaren lehenaz, orainaz eta etorkizunaz.



Santiago Omañas: “Gure lana haurrei irakastea eta hezteada, baina lanbide honek gu ere hezten gaitu”

Santiago Omañas eta Inma Albisua Gainzuri ikastetxeko irakasleak dira. Omañas Zamoran jaio zen duela 57 urte. Euskal Herrian irakasle beharra zegoelako erabaki zuen hona etortzeko eskaria luzatzea. Lazkaon, Beasainen eta Itsasondon lan egin zuen eta 1977-78 ikasturtean Juan XXIII ikastetxera etorri zen.

Inma Albisua zumarragarrak, berriz, 52 urte ditu. Psikologia ikasi zuen, baina Urretxuko eskola publikoa euskalduntzeko irakasle euskaldunak behar zituzten eta ordutik irakaskuntzan dihardu. 30 urte beteko ditu aurki lan honetan.

Omañasek zientzia arloko ikasketak egiteko asmoa zuen, baina etxean asko ziren eta karrera motz bat hautatu behar izan zuen. “Batzuek bokaziozko irakaslea naizela uste dute, baina nire lana ahalik eta hobekien egiten saiatzen naitzelako da. Atxagaren *Gizona bere bakardadean* liburuan aipatzen den bezala, toki batera nindoan, baina olatuak harrapatu ninduen eta beste batera eramanez ninduen”.

Olatuak Gipuzkoara ekarri zuen. “Ikasketak bukatu nituenean, lan eskariak aurkezteko garaia heldu zen. Nora bidali? Huescan lanpostu bakar batzuk zeuden eta hemen, berriz, gehiago. Hala, eskutitza hona bidali genuen”.

Lazkaon hasi zen lanean. “Nire anaia Bilbon zegoen eta berarengana jo nuen. Neskalguna Lasarten zuen eta Gipuzkoara etortzen zenean Donostian lo egiten zuen. Etxeko nagusiek Lazkao



Inma Albisua eta Santiago Omañas, Gainzuri ikastetxeko sarreran.

separatista zela esan zioten eta anaia beldurtu egin zen. Eskaintzeari baiezkoa eman aurretik herria ezagutzera joan ginen. Baiezkoa eman nien eta eskolan Lazkaon paperak nirekin batera bete zituen zamorar batekin topo egin nuen”.

Albisuak, berriz, Psikologia ikasi zuen eta irakaskuntzan bukatu du. “Urretxuko Udalak egitasmo berri bat abian jarri zuen eskola publikoa euskalduntzeko: eskolaurrea ireki zuen eta bi irakasle kontratatu zituen, Maite Ugalde eta ni. 1980an hasi ginen”.

Berak dioenez, “erosotasunagatik” hasi zen irakaskuntzan lanean. “Ikasketak bukatu ondoren, Bergarako psikopedagogikoan hasi nintzen lanean eta Elgoibarrera joan beharra nuen egunero. Urretxun egitasmo berri baterako irakaslek behar zirela jakin nuenean, Udaleko jendearekin harremanetan jarri nintzen. Udalak zuen jendea kontratatzeke ahalmena eta ezagutzen ninduteenez... Niretzat Urretxun lan egitea Elgoibarren aritzea baino erosoagoa zen”. Argi eta garbi dio irakaskuntzan aritzea ez zela bere hasierako asmoa.

“Arlo klinikoan lan egin nahi nuen eta praktikak Gurutzetako ospitalean egin nituen”.

Ez da garai batean hartutako erabakiaz damu. “Batzuetan, klinika munduari heldu izan banio, zer gertatuko zen pentsatzen dut. Hutsune hori gelditu zait, baina eguneroko lanean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan dudala ere iruditzen zait. Gustura nago”.

Omañasek irakasle lana oso aberasgarria dela dio. “Gure lana irakastea eta heztea da, baina lanbide honek gu ere hezten gaitu. Nire izaera jarduera honen ondorioa da: inguruak, lagunek, gurasoek, bizitako egoerek... eragina izan dute”. Albisuak arrazoia ematen dio eta gizartea zein eskola asko aldatu direla

Inma Albisua:

“Gure lanean jende askorekin harremana dugu eta horiek gugan eragina dute”

gehitzen du. “Gure lehen urteetako lanak eta egungoak ez dute zerikusirik. Gure lanean jende askorekin harremana dugu eta horiek gugan eragina dute: kalea, umeak, gurasoak, familiak, erakundeak...”.

Pertsonekin harremana da, hain zuzen ere, euren lanbidearen alderik onena. “Umekin lotura handia sortzen da”, dio Omañasek. “Txikiengan eragina izan dezakegula jakitea gure autoestimurako

oso ona da. Ez dugu batuketak egiten bakarrik irakasten, bide bat markatzen saiatzen gara”, azaldu du Albisuak. “Taldea bat uzten dugunean, pena handia sentitzen dugu”, aipatu du bere lan-kideak.

Zamoratik etorritako irakasleak euren lanak alde txarrak ere badituela onartu du. “Batzuetan frustrazioa ere sentitzen dugu: nahia eta ezina. Zenbait gauza ez daude gure esku. Ume guztiak eskolara datoz eta batzuen eta besteen artean alde handiak daude. Batzuekin psikologo lana egin behar dugu. Lanbide honetan entzuten ikasten da”.

Ildo beretik, Albisuak eskola gizarte osoaren isla dela gogorazten du. “Hori oso aberatsa da, bai guretzat eta bai umeentzat, baina gauza txarrak ere baditu: Santiagok aipatu duen frustrazioa, esaterako. Eskolak dena konpondu behar duela pentsatzen da askotan, baina toki zehatz bateraino heltzen da. Gainera, gauza batzuetan, gizartea eta eskola bide ezberdinetatik joan dira: balore batzuk lantzen ditugu eta gizartea beste toki batetik doa. Familiarekin berbera gertatzen da: gure jokaera eta euren ezberdina denean, tirabirak sortzen dira. Eskolak ezin du dena egin”.

Omañas bat dator. “Guraso batzuek, egungo bizimodua dela eta, ezin dute seme-alaben gaineko ardura hartu eta dena eskolaren esku uzten dute. Haur Hezkuntzakoek etxeak egin beharko lituzketen gauzak egin behar dituzte askotan”. Inma Albisua Haur Hezkuntzako irakaslea da, hain zuzen ere. “Gu gara garbitzen, jaten eta janzen irakasten dugunak, mugak jartzeko ditugunak... Geroz eta ardura gehiago eman zaigu”.

Familia ereduak aldatu delako gertatu dela uste du. “Garai batean familia guztiak zabalak ziren: aita, ama, aitona-amonak... Egun eredu ezberdinak daude eta gure lana horri egokitu beharra dugu. Zer kontatu behar diegu familiarri buruz?”.

Sinesmenekin eta jatorriarekin beste horrenbeste gertatzen da: eskoletan jatorri eta sinesmen ezberdineko haurrak daude. “Lehen cafe para todos zen. Esfortzu handia egiten dugu aniztasunera egokitzeko. Nik 22 haur ditut eta elkarren oso ezberdinak dira. Horrek

Inma Albisua:

“Gauza batzuetan, gizartea eta eskola bide ezberdinetatik joan dira”

egunerako lanean zailtasunak sortzen ditu, baina aberastasuna ere ematen digu”, azaldu du Inma Albisuak.

Bestalde, ikastetxeak asko hazi dira eta baliabideak hobetu egin dira. “Ni hasi nintzenean 18 irakasle ginen eta dena egiten genuen. Harreman oso estua genuen. Hori askotan aipatzen dugu. Atezaina behar genuen eta, lortu genuenean, Eusko Jaurlaritzak bere kanpaina bat aurrera eramateko emandako esne kaxez betetako gela batean jarri genuen lanean. Marianek askotan gogoratzen du hori”, azaldu du Inma Albisua irakasleak.

Puri Urrate: “Garai batean material guztia guk prestatzen genuen, gaztelerazkoa bakarrik baitzegoen”

Puri Urrate, Montse Alkorta eta Jone Aldalur Urretxu-Zumarraga ikastolako irakasleak dira. Urrate hiruetan beteranoena da eta Haur Hezkuntzan lan egiten du. Aldalur haurtzaindegian aritzen da eta Alkorta DBHko irakaslea da. Azken hau zuzendaria izango da irailetik aurrera.

Urrate ikastolaren hirugarren ikasturtean hasi zen lanean. Dagoeneko 40 urte daromatza bertan. “Aldaketa handiak ikusi ditut eta egokitzen saiatu naiz. Orain artekoek 60 urterekin erretiratzeko zortea izan dute eta nik ere nahi nuke. Izan ere, gure lana neketsua da”, dio. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 2. maila bitarteko haurrekin lan egin du eta “neke fisikoa” eragiten dutela aipatu du. “Dinamismo handia behar da. Sasoiari egon behar da”.

Aldalur Urraterekin bat datoz. “Neke fisikoaz gain, psikikoa nabaritzen dugu. Pazientzia mantentzea zaila egiten da batzuetan”. Alkortak, ikasleen adinaren araberrako gaitasunak behar direla gehitu du. “Batzuek buruhauste batzuk ematen dituzte eta besteek beste batzuk. Goiko mailakoekin pazientzia, dinamismoa, beti pozik egon beharra... ez dira horren beharrezkoak. Energia motibatze behar dugu: nola ikasi eta nola lan egin irakasteko, lana zertarako den ikusarazteko... Egun txarra dugula eta txintxo portatzeko eska diezaiekegu”, dio adibide gisa.

Handienekin dabiltzanek ezin omen dute ikasleengan txikienekin dabiltzanek bezainbesteko eragin izan. “Txikien begirune handiz jokatu behar da. Handiekin, berriz, gerora ere hitz egin dai-



Puri Urrate, Montse Alkorta eta Jone Aldalur, ikastolan.

teke: atzo hau eta hau gertatu zen, ulertuko duzu...”. Alkortak oso ondo daki nerabezaroan sartzen ari direnekin lan egitea zer den, eurekin aritu baita duela 29 urte ikastolan hasi zenetik. “10 urteko ikasleekin hasi nintzen eta horiek izan dira izan ditudan gazteenak. Oso gustura nago ikasle nagusienekin. Askok errazena Haur Hezkuntza dela esaten dute, baina ez naiz iritzi berekoa. Ezberdinak dira eta bakoitzak bere estrategia eskatzen du”.

Aldalurrek, berriz, txikienekin lan egiten du: haur eskolakoekin. 9 urte daromatza ikastolan. “Umeak asko gustatzen zaizkit, baina orain etxean ere baditudan eta beti lanean nagoela iruditzen zait. Ez dut deskonektatzen, nahiz eta etxekoa eta hemengoan lan ezberdinak diren”.

Hala ere, zorionekoa dela uste du. “Kazetaritza ikasi nuen, baina askotan pentsatu dut zergatik ez ote nintzen honetan lehenago hasi. Beti gustatu zait mundu hau eta, halako batean, saiatzea erabaki nuen”. Alkortak irakasle lana bokaziozkoa dela uste du. “Zazpi urterekin jada, andereñoa izan nahi nuela esaten nuen”.

Puri Urrate ere bokaziozko irakaslea da, baina hezkuntza mundua izan zen beregana jo zuena. “Ikastola sortu berria zen eta herri hauetan, zoritxarrez, euskaldun gutxi zeuden. Euskaraz nekielako eskaini zidaten ikastolan lan egitea eta Donostiako lizeoan ikasi nuen oinarrikoa. Handik urte batzuetara, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate

Nazionalean irakasle-ikasketak egiteko aukera eskaini ziguten. Zenbait urte gogorak izan ziren, semeak haztea, lan egitea eta ikastea tokatu zitzaizkidan. Dena den, hain gustukoa nuen...”.

40 urte pasatu dira dagoeneko Urrate lanean hasi zenetik. Gauza asko aldatu dira denbora honetan guztian. “Hasteko, egun jaio orduko datoz. Lehen, hiru urterekin etortzen ziren. Lehen urteetan 3, 4 eta 5 urtekoak elkarrekin izaten genituela gogoratzen dut: 40 bat klase bakoitzean. Prestakuntza eta teknologia ere asko aldatu dira. Ordu asko sartu ditugu. Garai batean material guztia guk prestatzen genuen, gaztelerazkoa bakarrik baitzegoen”, oroitzen du.

Alkortak irakaslearen rola ere aldatu dela uste du. “Hona etorri ginenean, oso garbi genuen zertara etorri ginen: ikasleen heziketan laguntzeko. Egun, eskolan denetik egin behar da. Askotan ez dakigu oso garbi gure eguneroko lana zein den: ikasleak eguneroko bizitzarako prestatu behar ditugu, baina askotan gizarteak dituen gabezia guztiak guk bete behar ditugu: bake hezkuntza, sexu hezkuntza, drogamenpekotasuna... Denbora ezaren sentazioa dugu”.

Irakasleek gurasoen lana ere bete behar dute batzuetan. “Lehen familietan oso garbi zegoen zer balore transmititu behar ziren. Eskolak eta gizarteak balore berberak zituzten. Egun, asko hitz egiten da baloreez, baina ez dakigu oso garbi nork transmititu behar dituen. Hala, gabezia guztiak eskolara datoz. Familia ereduaren aldaketa asko atzematen da”, dio.

Gainera, esfortzua ez omen da lehen bezainbeste baloratzen. “Gauzak esfortzuari esker lortzen zen eta askotan frus-

trazioa egoten zen. Egun familia askotan ez dituzte haurrak frustratu nahi eta, horren eraginez, umeak ez datoz zailduta. Dena erraza izan behar dela eta gauzak lortzeko eskatzea nahikoa dela iruditzen zaie”. Urrate eta Aldalur bat datoz. “Duela hamar bat urte, 3 urteko haurrak oinez

Montse Alkorta:

“Askotan, gizarteak

dituen gabezia

guztiak guk bete

behar ditugu”

etortzen ziren, katilutik gosaltzen zuten... Egun, 5 urteko haur batzuek biberotik edaten dute, autoz ekartzen dituzte...”, dio lehenengoak. “Komunetik altxatu behar dituzu, txamarra jarri behar zaie...”, gehitu du Aldalurrek.

Hezkuntza mundua asko aldatu bada ere, euren lana lehen bezain gustuko dute. Dena den, alde txarrak ere badituela onartzen dute. “Bertan bizi gara eta pertsona askoren ahotan gaude, onerako eta txarrerako. Asko kosta zitzaizkidan horretara ohitzea”, azaldu du Alkortak.

Bestalde lan “oso bizia” dela dio. “Hamar hilabetetan topera lan egiten dugu. Pertsonekin lan egiten dugula kontuan izan behar da eta erratzeko beldur handia izaten dugu. Eskerrak ikasleak esku askotatik pasatzen diren: batek asmatzen ez badu, besteak asmatuko du”.

Euren lanaren alderik gozoena, berriz, haurrekin sortzen den harremana dela

diote. “Maite dituzu. Kariñoa hartzen diezu eta eurek ere asko ematen dute. Guregana etortzen dira, besoetara salto egiten digute, musu ematen digute, euren kontuak kontatzen dizkigute... Hori guztia oso pozgarria da”, azaldu du Urratek.

LHkoak eta DBHkoak ez dira horren maiztagarri azaltzen irakasleekin, noski. “Niri egun guztiak ezberdinak direla iruditzen zait. Lanera asmo batzuekin etortzen gara eta, askotan, eurek beste bide batetik garamatzate. Hori ikaragarri gustatzen zait. Talde guztiengandik ikasten dugu zerbait eta hori hurrengo urteetarako baliagarria izaten da. Gainera, 14 urteko ikasleak aldaketa prozesu batean daude eta hori eurekin bizitzea oso polita da. Oso kritikoak dira eta horrek tentsioan mantentzen zaitu. Asko ematen dute, nahiz eta beti protestan egoten diren”, aipatu du Montse Alkortak.

Aldalurrek, berriz, laneguna oso azkar pasatzen zaiola aipatu du. “Bestalde, haurrekin eta gurasoekin hartu-eman handia dugu. Hori ere oso polita da”.

Bukatzeko, anekdotaren bat kontatzeko eskatu diegu eta beteranoenak hartu du hitza. “Kanpotik etorri zen lehenengoetako bat kubatarra zen. Lau urterekin sartu zen. Ordura arte eskolan egon gabea zen eta oso gogorra egiten zitzaion gelan egoitea. Atea ireki eta ihes egiten zuen. Bere bila joan behar izaten nuen. Gelan egon behar zela, beste zer edo zertara jolastuko genuela... esaten nion. Berak, *¡cállate chimosa, que te boto!* esaten zidan. Bestalde, lankide baten amak ume hori ezagutu zuen eta, nahiko beltzarana zela ikusirik, *badauka meritua Zabaletako horrek, honi euskaraz nola irakatsi dion! esaten zuen*”, oroitzen du.

Juanjo Idiakez: “Lehen baino baliabide gehiago ditugu, baina burokrazia ere asko hazi da”

Juanjo Idiakez eta Jon Aztiria La Salle-Legazpi ikastetxeko irakasleak dira. Idiakezek urte mordoxka daramatza bertan lanean eta Aztiria, berriz, hasiberria da. Biek gustuko dute hurrekin aritzea. Idiakezek duela 35 urte ezagutu zuen irakaskuntza mundua, La Sallen bertan. “Hasieratik hemen aritu naiz. Antzuolako Goizper enpresan lan egiteko aukera nuen eta, haren zain nengoen bitartean, La Sallen hasteko parada suertatu zen eta aprobetxatu egin nuen. Gustura nengoenez, gelditu egin nintzen”.

Ez zuen irakasle-ikasketarik egin, baina hezkuntza gustukoa du. “Medrano ahizpekin aritu ondoren, La Sallen bertan maitzuta tekniko ikasketak egin nituen. Azkenik, Huescako Unibertsitate laboralean kimika ikasi nuen”, laburbildu du.

Hala, ez zuen uste irakasle lanean bukatuko zuenik. “Lana behar nuen eta, pixkanaka, gustura sentitu nintzen. Hasieratik ondo moldatu nintzen ikasleekin. Lehendik zeuden irakasleak ni baino gogorragoak ziren eta, hasieran, haurrak nahastuta zeuden. Garai batean fraideek esku arin samarrak zituzten...”.

Jon Aztiriak ez zituen garai haiek ezagutu, 80ko hamarkadan jaio baitzen. Hala, duela urte eta erdi hasi zen La Sallen lanean. “Karrera bukatu nuenean, irakasle izateak tentatzen ninduen. Bat-batean aukera hau suertatu zen. Gustura nago eta jarraitzeko asmoa dut”. Irakasle lanean hasiberria den arren, hurrekin esperientzia handia du. Izan ere, futbol entrenatzailea da eta gazte lokaleko begiralea



Jon Aztiria, Juanjo Idiakez eta Begoña Jauregi, La Salle-Legazpi ikastetxeko patioan

izan da. “Esperientzia hori lagungarria izan zait eta gaztetxoekin gustura sentitzen naiz. Gainera, ikasleetako batzuk lehendik ezagutzen nituen”, gehitu du.

Dena den, Juanjoren eta gainontzeko veteranoen aholkuak ez zaizkio gaizki etorri. “Hasiberriei beti aholku bera ematen diet: hasieran soka motzean lotzeko eta gero pixkanaka askatzeko. Gogorrak izan gaitezkeela erakutsi behar da, agintea nork duen argi izan dezaten”, dio Idiakezek.

Bere ustez, irakasle lanbidearen gauzarik onena monotonía eza da. “Egun guztiak

ezberdinak dira eta hori ona da. Okerrena egungo haur askoren errespetu falta da. Lehen etxean irakasleari errespetua zor zitzaiola irakasten zieten. Hala, gela bakoitzean 40 bat haur genituen arren, bi hitz nahikoa ziren lanerako giro egokia lortzeko”.

Ildo beretik, Aztiriak haurrak etxean hezi behar direla uste du. “Guk lagundu egin dezakegu, baina umeek etxean jaso behar dute heziketa. Guraso batzuek ez dute hori behar bezain argi. Bestalde, guraso batzuk jarrera erasokorrenekin etortzen dira. 12 urteko haur batengan

gugan baino konfiantza handiagoa dutela dirudi”, aipatu du. “Lehen mugak oso argi zeuden. Orain, berriz, haurrek gauza berak egiten dituzte etxean, kalean, eskolan...”, gehitu du ldiakenezek.

Haurrez eta gurasoez gain, irakaskuntza bera ere aldatu da. “Baliabide gehiago ditugu, baina burokrazia ere asko hazi da. Haurrei eskaini beharko geniekeen denbora, paperak betetzen ematen dugu. Denbora falta dugu”, dio.

Aurki denbora gehiago izango du, bi urte barru erretiratuko baita. “Irakaskuntza oso gustukoa dut, baina erretiratzeko gogoia dut”. Aztiriak bere lankidea ulertzen du. “Lanbide honetan, batzuetan, une oso zailak bizitzen dira. Beste batzuk, berriz, oso pozgarriak dira. Lan egin duen ikasle batek saria lortu duela ikustea, adibidez,

bikaina da. Gure laguntza izan duela jakitea polita da”.

Ikasleekin sortzen den harremana ere aberasgarria da. “Batzuetan eskolan hikamikak izaten ditugu, baina kalean denek

Jon Aztiria:

“Guk lagundu egin dezakegu, baina haurrek etxean jaso behar dute heziketa”

kasu egiten didate. Lagunek bizi naizen herrian eskolak ematea gogorra dela uste

dute, baina nik ez dut inongo arazorik izan”, azaldu du ldiakenezek. Gai horren inguruan, Aztiriari aholkua eman zion. “Kalean irakaslea naizela ahazteko esan zidan. Nire bizitza pertsonala dudala eta aurrera eraman behar dudala aipatu zidan. Eskolak ezin du gure bizitza goitik behera baldintzatu”.

Juanjok bizilagunak kalean eurekin ondo portatzen direla dio. “Bakarrik noizean behin etortzen zaigu norbait bere seme-alabei buruz galdezka”. Aztiriak gai horren inguruko anekdota bat du. “Ama batek kalean gelditu ninduen eta semeari buruz galdetu zidan. Oso mutil ona zela esan nion, baina ez nekien noren ama zen. Izan ere, eurek gu ezagutzen gaituzte, baina guk ikasle asko ditugu eta oso zaila zaigu guraso guztiak ezagutzea”.

Begoña Jauregi: “Batzuetan itota sentitzen gara, baina haurrek asko ematen digute eta ase egiten gaituzte”

Begoña Jauregi zumarragarra ere La Salle-Legazpi ikastetxeko irakaslea da, baina bera Haur Hezkuntzan aritzen da. ldiakenezekin eta Aztiriarekin gelditu ginen egunean ez zuen azaltzerik izan eta handik egun batzuetara erantzun zituen Otamotz aldizkariaren galderak. Jauregik 25 urte daramatza La Salle-Legazpin lanean. Irakasle-ikasketak egin zituen eta Antzuolan eman zituen lehen pausoak.

Haur txikiekin lan egitea gustatzen zaio-lana aipatu du. “Oso argi nuen beraiekin lan egin nahi nuela eta ez naiz erabaki hori hartu izanaz damutu. Ikasketak gaztaroen egin nituen eta ordutik urte

asko pasatu dira, baina aukera ona egin nuela uste dut”.

Dena den, bere lana batzuetan gogorra dela onartzen du. “Beharrei bat-batean erantzun beharra da okerrena. Batzuetan itota sentitzen gara, baina haurrek asko ematen digute eta ase egiten gaituzte: poztasuna, bizitasuna... eskaintzen digute. Gizartea aldatzen doa eta horretara moldatu behar dugu. Egunean egon beharra dugu eta hori aberasgarria da. Irakaskuntza etengabe aldatzen da”.

25 urte hauetan haurrak ere aldatu direla uste du. “Lehengoen eta oraingoan bizipenak oso ezberdinak dira.

Oraingoek bizimodu irekiagoa dute, herrian bertan lehen baino ekintza gehiago antolatzen baitira beraientzat: ipuin kontalariak, txotxongiloak... Lehen Donostiara joan behar zen halakoak ikusteko”.

Gurasoen bizimodua ere aldatu da eta horrek seme-alabengan eta irakasleengan eragina izan du. “Lehen eta orain, onena nahi dute euren seme-alabentzat, baina emakumea lan-munduan sartu da eta haurrek lehen baino denbora gehiago pasatzen dute eskolan edo zaintzaileekin. Lehen eskola ikasteko toki bat zen eta orain balore asko landu behar dira haurrekin”.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDATEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JAVIER Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60

BIONA

ARROZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz



alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Montajes e Instalaciones Electricas

HERCE

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



natural optics

URRETXU

Lurdes Rodriguez Iparragirre, 1-Urretxu
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINNTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU



Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com



Construcciones MENDIOLA

Labeaga, 9 Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Email: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Otamotz

Herri Aldizkaria

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO


Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

Autorik gabe, askoz hobe!!!



Eskerrik asko Iñaki Zabala eta Mikel Serrano jaun agurgarriak. Hileroko gai bila erotzear izaten garen honetan, aspaldiko polemikarik bizi eta interresgarriena piztu baituzue. Putxerazoak? Krisiak eragindako dramak? Neurrigabeko soldatak? Desindustrializazioa? Kutsadura? Ez jaunak, herrian kotxean ibiltzeak sortu ditu gure artean aspaldi ez bezalako eztabaidak –kalaka hitza intelektualentzat utziko dugu–.

Zumarratar peto-petoak izanda, are gehiago urretxuarrek Zumarragako Aberri Eguna deitzen dutenaren bezperetan, ez dugu betiko dikotomia antzuan sartu nahi; Mikelek arrazoi duela, Iñakik erabakiak bere kasa hartu dituela, errotondak karratua behar duela... Ohikoegia ez dirudien arren, alkateen alde egingo dugu oraingo honetan. Izan ere, trafiko planaren erabakiak zuzenak edo okerrak direnaren balorazioa teknikariei utzita, planaren filosofiarekin bat egiten dugu erabat.

Heritik kotxean ibiltzeko azken belaunaldiko hiru GPS, Peña Racingeko kopilotu bana eta lauzpabost mapa behar diren neurrian, zailagoa egingo zaio BMWa erosi berri duen mukizuari arratsaldekak heritik musika txungoa topera duela bueltaka ematea. Eskolara umea tankea dirudien 4x4an eraman behar duen amak bi aldiz pentsatuko du ea ez ote zaión erosoagoa izango haurra autobusean edo oinez bidaltzea, bide batez umeari trabesia horretan sekulako abenturak bizitzeko aukera emanaz. Egiten duten burrunbadarekiko alderantziz proportzionalak diren motorren ibiliak ere erruz murriztuko dira, hori dirua ateratzera kutxazain barrura autoz sartu behar duten horien ibiliak ahaztu gabe.

Hilabete hauetan sortu ditugun sinpatia apurrak galtzeko arriskuarekin. Gora trafiko plan berria!!! Eta bi herriotako udaltzainak, ekin isunak jartzeari, nahiz eta bakarren bat guri erori!!!

Urretxuko igerilekura joateko ohiturarik ba al duzu?

Baldin baduzu, zer egiten duzu bertan?



Iguntze Aseginolaza




Igerilekura joaten naiz eta urtero-urtero txartela ateratzen dut. Hartara, joateko aitzakia dut. Goizez edo arratsaldez joaten naiz, egunaren arabera. Aukera polita da lagunekin egoteko, bainua hartzeko...

Iñigo Ormazabal



Urretxuko igerilekuan egon izan naiz, baina zer esango dut... Ireki zutenetik 10 bat aldiz egongo nintzen? Hondartza nahiago dut. Itsaso zabala igeri egiteko erosoagoa eta erakargarriagoa iruditu izan zait beti.

Salva Navarro



Ez. Ez daukat igerilekura joateko ohiturarik. Noizbait joan izan naiz, baina instalazioak ezagutzeko besterik ez. Zumarragakora ere ez naiz joaten: kirola aire librean egitea atsegin dut. Hondartza ere ez dut gustuko. Mendia nahiago dut.

Uxue Zabala



Aurten joateko asmoa dut, baina aurreko urteetan lanak eragotzi egin dit. Dagoeneko txartela atera dut. Igerilekua gogoko dut lagunekin egoteko. Izan ere, hondartzara joatea neketsuagoa da: ia egun osoa behar da.

Gaia: Ikusteko ahalmena berreskuratu duzu

Doinua: Zure eskaerak egia esan

Amaia Iturriotz



Aurren daukadan dena ikusi
dezaket orain jadanik,
eta egia esatekotan
ez det sinisten oraindik.
Baina gehio itsu ez naiz izango
hau zorionez badakit
eta lehenengoz ama ikusi
det nere pare hontan nik,
joe, amatxo barrutik bezain
polita zara kanpotik.

Begien beltzak urte luzetan
bakardadean nau ito,
baina kondena bukatu egin da
eta honenbestez kito.
Ikusiko dut gaurtik hasita
gaurtik hasita betiko,
kolore asko daukan gauzari
gehiago diot jarriko,
ta ikusi nahi ez dudanan aurren
ez det begirik itxiko.

iritziz iritzi


Ibon Garmendia



Oroimena, bizitzaren abiada neurgailua

Gure etxean udalak bidalitako egutegi bat dauka-
gu zintzilik. Hilero zein argazki aurkituko dudan
zain egoten naiz, eta aurtengo ekainean garai
bateko auto horietako bat jarri digute. Autoek ez
didate gauza handiegirik transmititzen, baina
zaharra izate horrek ekainaren nostalgiara era-
man nau. Nostalgia horrek kurtso amaiera, opo-
rrak edota San Joan suaren usainera eraman nau.
Azken horrek, San Joanek, beti transmititu izan
didate zer edo zer berezia. Haurtzaroan, gure
auzoan egiten zen suaren oroitzapena daukat.
Arrietatarrak uste dut zirela haren arduradun eta
gaur egun ezinezkoa litzateke bertan sua egiterik
autoren batek su hartu gabe. Gero lizeo atzean
egiten zen sua bizi izan nuen. Bazterretan aurkitu-

tako edozer bildu eta han jartzen genuen geure
alea. Berri onak eta txarrak bizi izan ditugu egun
horren bueltan. Adibidez, San Joan bezpera bate-
an askatu zuten *Pifo* laguna eta halako egun bate-
an izan ziren herriko azken uholde handiak.
Agurren atala ere bete izan du San Joanen buel-
ta horrek. Halako egun bat izan genuen
Gazteleku zaharrari agur esateko azken eguna.
Bestetik, duela 6 urte, San Joan bezpera batean
joan zitzaigun festa egun hauek ikaragarri bizi eta
maite zituen Santi maisua. Kasualitatea izango
zen egun horretan gure artetik joatea... edo ez?
Hori ekarri dit egutegiko orri honek. Oroitzapenek
erakusten diguten denboraren abiada bizia.
Balaztaren bila nabil eta ez dakit non dagoen.



"T"

Juanjo Ollasagarre

Juanjo Ollasagarre idazlearen bigarren eleberriak "T" izenburu laburra dauka. Letra horrek bi gauza adierazten ditu: batetik, Terese protagonistaren izena, eta bestetik, tragedia. Terese neska gazte bat da, unibertsitatean tragediari buruzko ikasketa egiten ari dena Barrutia irakaslearekin. Hau ez da nolanhiko irakaslea. Tragedia zer den esplikatu eta tragedia bizi nahi du Tereserekin batera. Bestetik, aita oso gaixo

du Teresek, bizitza amaierako tragedia bizitzen. Baina horren guztiaren atzetik jakin-min itzela sortzen zaio protagonistari: aitak eta Barrutiak gaztetan elkarrekin zer bizi izan zuten jakiteko antsia sakona. Zerbait iluna gertatu zen, baina inork ez du garbi aitortu nahi zer. Juanjo Ollasagarreren idazkera zaindua beti da erakargarria, nobela orekatuan barrena gozatzekoa.

Iñaki Bastarrika


Iron and Wine

Around the Well

Isilean lan egiten dutenetakoa da Sam Bean, Iron and Wine proiektuaren atzean ezkututzen den sortzaile bizar luzeduna. Musika maite du, eta kantuak konposatzea eta grabatzea du zaletasun handiena. Datorren urteko udaberrian kaleratuko du *The Shepperd's Dog* (2007) ederraren jarraipena, baina bitartean ez da geldirik. *Norfolk* izeneko zuzenekoa plazaratu du oraintsu, oso edizio mugatuan, eta

2002an *The Creek Drank the Candle* lehen iraupen luzekoa argitaratu zuenetik gaur arteko ibilbidea laburbiltzen duen *Around the Well* ere merkaturatu du. Bitxikeriez eta hasiera batean bigarren mailakotzat hartutako folk pieza barnerakoiez osaturiko lana izan arren, bere horretan nortasuna eta izateko arrazoia duen disko liluragarria da.

Gorka Erostarbe





Vals with Bashir

Ari Folman

Dokumentalaren arlotik dator Ari Folman, *Vals with Bashir* filmaren gidoilari eta zuzendaria. Film honekin Ekialde Hurbilean gertatutako sarraski tragikoenetako bat kontatu nahi izan du: 1982 urtean, Libanoko lehen gudan, Beiruteko Sabra eta Chatila errefuxiatuen kanpamenduetan milaka palestinar hil zituzten Libanoko falangistek. Bashir Gemayel falangista libanoarra hil izanagatik mendekua hartu zuten bere

jarraitzaileek, Israelgo armadaren pasibotasun eta oniritziarekin. Ari Folman zinemagilea Israelgo armadan zegoen sarraskia gertatu zen garaian, baina ez du kanpamenduan gertatutakoaren oroimenik. Armadan izan zituen kideen eta egun haietan Beiruten izandako soldadu eta kazetarien lekukotasunak jasoko ditu gertaera mingarri haiek berreskuratzeko.

ButaK 21 zineklub taldea




▼
Azken urteotan herrian izan diren kontzertuetako batzuetan ateratako argazkiak. Ezkerretik eskuinera eta goitik behera, lehen orrialdean: 1-Midlefingers. 2-Oreka TX. 3-High school guners. 4-Royal canal. 5-Bad manners. Eskuineko orrialdean: 1-The hot dogs. 2-Apicultors. 3-Sex museum. 4-Shiver. 5-Sextysexers.



Alfonso Cuesta: hamaika aldapa gainditu dituen urretxuarra

*Alfonso Cuesta 'Aldapa' urretxuarrak Alemaniako intsig-
nia garrantzitsuenetako bat jaso du gizarte arloan egin-
dako lanagatik. Aspalditik bertan bizi da, baina Euskal
Herria bihotzean darama eta, ahal duen heinean,
hemengo ekimenetan laguntzen du.*

Alfonso Cuesta, Alemaniako bere etxean.



Nolakoa izan zen zure haurtzaroa?

Umetan polioa izan nuen eta horrek paralisia eragin zidan zangoan. Gainontzeko umeek egiten zutena egiteko zailtasunak nituen, baina eurak bezalakoa izaten saiatzen nintzen. Amarengandik jaso nuen horretarako behar nuen indarra. Sekula ez nintzen atzean gelditzeko beldur izan, bizikletan ibiltzen nintzen, igeri egiten nuen, zuhaitzetara igotzen nintzen eta lagunekin borroka egiten nuen. Neskengana hurbiltzeko orduan ere, ez nuen konplexurik izaten. Haurtzaro zorionsua izan nuen. Amak funtsezkoa jarrera zela irakatsi zidan.

Gainontzeko umeekin ez al zenituen inoiz arazoak izan?

Koxkortu nintzenean, teoritik praktikara aldea zegoela ikusi nuen. Neskek ez zuten nirekin egon nahi eta nire arazo fiskoarengatik zela konturatu nintzen. Ateratzeari utzi nion eta nire amatxo zer gertatzen zen jabetu zen. Hanka mozteko

eta ortopedikoa jartzeko prest ote nengoen galdetu zidan eta baietz erantzun nion.

Hori egin al zenuen?

Belaunetik gora indarra nuenez, belauna eta hanka zurrun jartzea proposatu zidaten eta hori egin nuen. Hiru hilabete eman nituen ospitalean eta bi gehiago etxean igeltsuarekin. Hau kendu eta bota ortopedikoa jarri zidatenean, ezin izan nuen negar egitea saihestu. Hanka lurrean jarri nezakeelako pozik nengoen, baina ibiltzeko bi bastoi behar izango nituela esan zidatelako triste. Amak asko animatu ninduen eta bastoi bakarrarekin ibiltzea proposatu zidan. Helburua lortu nuen.

Nolakoa izan zen gaztaroa?

Neska kontuari dagokionez, egoera ez zen hobetu eta mendira joaten hasi nintzen. Hasieran apur bat, gero Santa Barbarara... Halako batean ametsetako eguna heldu zen: lrimora heltzea lortu nuen. Oargui elkartera jo nuen. Jon eta Felitxu ezagutu nituen. Hasieran ez nin-

duten euren irteeretan nahi, baina nik ere parte har nezakeela erakutsi nien. Behin Gorbeara joan ginen. Gidariak ziztu bizian eramanean gintuen eta, halako batean, amore eman behar izan nuen. Felitxu Gonzalez de Audikana nirekin gelditu zen. Jainkoak bidali zidala uste dut. Gaztaroko lagunik onena izan zen. Felitxuri egunen batean Gorbea mendiko gailurra elkarrekin zapalduko genuela zin egin nion eta agindutakoa bete nuen. Gailur askoz ere altuagoak ere zapaldu ditut.

Mendizale porrokatua izan zara, beraz.

Besteak bezalakoa izateko borrokatzen nintzen eta, hala, mendiko kirol guztiak ezagutu nituen: eskalada, martxak, espeleologia... Urbiak, Aralarrek eta Urbasak ez zuten sekreturik guretzat.

Zure herrentasuna kontuan izanda, nahikoa meritu bazenuen.

1956an Gipuzkoako mendizaleek omenaldia eskaini zidaten. Jatetxean 300 lagun inguru elkartu ziren eta nire ama pozez gainezka zegoen.

Parrandarik egiten al zenuen?

Alaia nintzenez, batzuek arduragabea nintzela uste zuten eta besteek ardoa gustuko nuela. Baina ardoa gorroto nuen. Hori bai, lagunek kalean abestu edo bihurrikeriaren bat egiten zutenean, ni ez nintzen atzean gelditzen.

Aipatutako guztiaz gain, gizarte arloan lan egiten zenuen.

Garai hartan bi apaiz gipuzkoar heldu ziren herrira: Don Manuel eta Don Santiago. Lehenengoa berehala egin zen herriko gazteen lagun eta HOAC (Hermandad Obrera de Acción Católica) taldea sortu zuen herrian. Bidegabekerien aurkako borroka maite nuen, hori ere amaren eraginez, eta berehala sartu nin-



Alfonso Cuesta, emaztearekin eta seme-alabekin.

tzen HOAC taldean. Bertan hasi nintzen soziologia politikoa ikasten.

Garai hartan, hori istilu iturri zen.

50eko hamarkada hasierako grebetan,

*“Herrenok ospe txarra
genuen eta lan bila
joaten nintzenean,
herrena nintzela
besterik ez zuten ikusten”*

istiluen erdian egoten nintzen eta Guardia Zibila atzetik nuen. Felitxuk kontuz ibiltzeko esan zidan, baina ni oso gaztea nintzen eta sutan jartzen nintzen bidegabekeria bat ikusten nuen bakoitzean. Behin, greban zeuden langileak Ederrena pilotalekuan elkartu ziren. Guardia Zibilak greba uzten bazuten langile presoak askatuko zituela esan zien eta zer egin eztabaida-

tzen ari ziren. Nik lagunak aske ikusi arte greba ez uzteko gomendatu nien oihuka. Handik irten nintzenean, Felitxuk hitza ukatu zidan eta aitak sekulako errieta egin zidan. Horrek guztiak ez ninduen kikildu eta politikan jarraitu nuen.

Zertan lan egiten zenuen?

Langabezian denbora luzea eman nuen. Goizero tren geltokira joaten ginen 11.00etako trena nola pasatzen zen ikustera. Bidaiariak, aurpegi ezezagunak... ikustea gauza handia zen guretzat. Antzerkira joatea bezala zen, munduan zer edo zer gertatzen zen seinale.

Garai hartan, herrena izanik, lana topatzea zaila izango zen.

Herrenok ospe txarra genuen eta lan bila joaten nintzenean, herrena nintzela besterik ez zuten ikusten.

Zein izan zen zure lehen lanbidea?

Herriko forja batek bere produktuak saltzea eskaini zidan. Erakusgaiak maleta batean zeuden eta sekulako pisua zuen. Sekulako izerdiak bota nituen, baina ez nuen bezerorik lortu. Etxera itzuli eta ikasten jarraitzea erabaki nuen. Handik bi hilabetera burdindegi batek bere produktuak saltzea eskaini zidan. Komisioa besterik ez nuen. Ni bezalako saltzaile asko zeuden eta hasi eta bi astera tranbia ordaintzeko dirurik gabe gelditu nintzen. Oinez joaten nintzen batetik bestera. Bilbon nengoela, jateko dirurik ere ez nuen. Pentsiotik bota zidaten eta parke batean lo egin behar izan nuen. Etxera itzultzeak lotsa ematen zidan, baina ez nuen beste aukerarik izan.

Non gehiago lan egin zenuen?

Osaba Pedrok berari laguntzea eskaini zidan. Portura irrati-igorgailua hondatuta iristen ziren arrantzuntzien enkarguak



Alfonso Cuesta, 1990ean bisitan joan zitzaizkion La Salle-Legazpi ikastetxeko ikasleekin.

jaso eta osabari deitu behar nion konpon-tzera joan zedin. Lana oso aspergarria zen. Hegaluzearen kanpainan patroli bat lokalera joan zen, baina ni ez nengoen: lagun baten festara joan nintzen. Lantokira joan nintzenean, arratsaldean, osaba zain nuen. Etxera bidali ninduen.

Nolatan erabaki zenuen Euskal Herritik alde egitea?

Asteburuetan mendira joaten nintzen lagunekin, baina nire bizitzak ez zuen funtsik, ez nengoen gustura, dena gaizki irteten zitzaidan... Garai hartan herren guztiak zapatagileak edo sastreak zirela esaten zen eta nik ezin nuen hori jasan. Urbian hartu nuen Euskal Herritik alde egi-teko erabakia. Ermita ondoan eserita nen-goela, isiltasunak eta Aizkorriko mendi ederrek lagunduta, nire pentsamenduak amets bilakatu ziren eta hauek egitasmo. Pasaporte eskuratzea eta Europako herrialderen batera joatea erabaki nuen. Arratsaldean, mendizaleak ermitaren

inguruan elkartu ginenean, otoitz egin eta *Agur Jaunak* abesten genuen bitartean, horrenbeste maite nituen mendiei agur esan nien.

Nora jo zenuen?

Motxilarekin eta 25 pezetarekin geltokira joan nintzen, gurasoak zinean zeudela baliatuta. Geltokian Felitxurekin eta bere anaia Jesus Marirekin elkartu nintzen. Batak Hendaiara txartela erosi zidan eta besteak Ideales paketea. Bat-batean, nire anaia Terin azaldu zen. Felitxuk gogor eusteko esan zidan, ez itzultzeko porrot eginda, asko horren zain zeudela eta. Elkar besarkatu genuen, anaiari musu eman nion, trenera igo nintzen eta, abiatu zenean, anaiaren oihu lazgarriak malkoak isurarazi zizkidan.

Nolakoak izan ziren mugaren beste aldean eman zenituen lehen egunak?

Hendaian pezetak frankoengatik aldatu nituen. Diru asko nuela iruditzen zitzaidan, baina ogia erosi eta xentimo bakar ba-

tzuekin gelditu nintzen. Neure buruari bidea gogorra izango zela, baina gauza errazek baliorik ez dutela esan nion. Auto-stop egiten hasi nintzen, baina ez nuen arrakastarik izan. Gaua heldu zen eta zelai batean lo egin nuen.

Gaua luzea egingo zitzaizun...

Bukaezina. Nire bizitzaren errepassoa egin nuen eta Martuteneko kartzelan igarotako egun gogorrak oroitu nituen. Pentsionista bat jipoitzen ari ziren Guardia Zibilei *kriminal* deitzeagatik eraman ninduten. 23 egun pasatu nituen Martutenen. Bertan preso politiko asko ezagutu nituen, tartean Santiago izeneko komunista bat. Espainiatik irtetea gomendatu zidan. Kanpoan elbarriak hobeto ikusiak zeudela esan zidan. Gau hartan, jada Espainiatik kanpo, aurrera egiten ez banuen, errutina- ra itzuliko nintzela konturatu nintzen.

Zer egin zenuen ondoren?

Auto-stop egin nuen. Baionara eraman ninduten, gero Bordeauxera, handik Angoulemera... Zelaietan edo topatzen nituen txaboletan lo egiten nuen. Egun batzuetan ez zen autorik gelditzen. Egun horietako batean, ia gaua zela, aurpegia orbainez josita zuen gizonetzko batek hartu ninduen. Ez zuen ezer esaten eta ezta keinurik egiten ere. Beldurtzen hasi nintzen. Are gehiago bidexka batean sartu zenean. Halako batean etxetar batera heldu ginenean, klaxona jo zuen eta sei ume irten ziren korrikan. Euren atzetik emaztea irten zen. Senarrak etxera sartzeko esan zidan, emazteak bi musu eman zizkidan eta haurrek ulertzen ez nituen galderak egin zizkidaten. Eurekin afaldu nuen eta 14 bat urte zituen seme zaharrenarekin, ohe berean, lo egin behar nuela jakinarazi zidaten. Gela berean beste hiru anaiek

lo egiten zuten. Zaharrenak nirekin hitz egin nahi zuten, baina ez nion tutik ulertzen. Denok barrez lehertzen bukatu genuen. Goizean gosaria eman zidaten eta emazteak nire motxila saltxitxoiez, ogiz eta frutaz bete zuten. Joan aurretik emazteak besarkatu egin ninduen eta sei seme-alabek musu eman zidaten. Aitaren autora igo nintzen begiak bustita. Errepide nazionalera heldu ginenean, gizonak kafea hartzera gonbidatu ninduen. Lanera joan aurretik besarkatu eta 50 franko eman zizkidan. Bizipen ahaztezina izan zen. Beti penatu nau euren helbidea apuntatu ez izanak.

Nora joan zinen gero?

Halako batean Parisera heltzea lortu nuen. Jose izeneko errepublikarrak eta Angeles bere emazteak egunak zera-matzaten nire zain. Josek larrua saltzen zuen eta bere bezero onenak zapatagileak ziren. Euretako batekin zapata konpontzaile lanetan aritzea proposatu zidan. Herrenak derrigor zapatagile izan behar genuen eta nik ez nuen zapatagile izan nahi. Lan bila hasi nintzen, baina ez zen batere erraza. Ez nintzen Jose eta Angelesen etxera itzultzera ausartzen eta Sena ibaiko zubien azpian lo egiten nuen. Filosofia ikasten zuen Stephan izeneko alemaniar bat ezagutu nuen eta honek jatetxeetako sukaldeen platerak garbitzeko jendea behar zutela esan zidan. Egun batean Stephanek Italiara joan behar zuela esan zidan eta lagundu egin nion. Auto-stop eginez, Paduara joan ginen.

Zenbat denbora eman zenuen bertan?

Sei hilabete eman nituen bertan, Stephanek Leuvenara joan nahi zuela esan zuen arte. Belgikako esperientzia

etsigarria izan zen: ez lanik, ez kalean lo egiteko aukerarik, eguraldi txarra... Ingalaterrara joatea erabaki genuen, baina horretarako dirua behar genuen: Danimarkara joan ginen, bertako arrain fabriketan lan egitera. Lantegiko kontserbak jaten genituen dirua aurrezteko. Halako batean, 1957ko irailean, Ingalaterrara joatea lortu genuen. Ez zitzaidan batere gustatu eta Stephanek Alemaniara joatea proposatu zidan. Portuan euskaldun batzuekin topo egin nuen, euren barkua Bremenera zihoala esan zidaten eta eraman egin gintuzten. Borgward auto lantegian langileak behar zituztela esan zidaten eta hara joan nintzen. Ilaran jarri nintzen eta *schweisser* zirela zioten guztiei lana ematen zietela

“Etorkinek bozeramale izendatu ninduten eta Udalak Atzerritarren Kontseilua sortzen uztea lortu genuen”

ikusi nuen. Hiztegian soldadore esan nahi zuela ikusi nuen eta nik soldadorea nintzela esatea erabaki nuen. Urretxun askotan ikusi nuen jendea horretan lanean eta erraza zirudien!

Zer moduz moldatu zinen?

Soldatzen hasi eta xasisean zuloa egin nuen. Ezezkoa eman zidaten, baina jateko lanpostua behar nuela jakinarazi nien nola edo hala eta hurrengo egunean joateko esan zidaten. Saileko buruari ondo

erori nintzaion eta soldatzen ikasteko aukera eskaini zidan eta horrek Alemaniako metalurgia enpresetan lan egiteko balio izan zidan. 1959ko udan, Nurenbergeko igerilekuan, Hilde ezagutu nuen. Bizitza berri bat hasi nuen.

Hilde zure emaztea izango da...

1960an ezkondu ginen. Gau-eskolan informatika eta alemana ikasi nituen. Urte hartako udan etorkin espainiar asko heldu ziren eta interprete lana eskatu nuen hainbat enpresatan. MAN izenekoan hartu ninduten, espainiar eta italiarrei laguntzen. Handik denbora batera etorkinak euren kabuz moldatzeko gai zirela ikusi nuen eta diesel motoreen mekanizazioa ikasi nuen. Horrek nire etorkizuna konpondu zuen.

Alemanian, gizarte arloan ere lan egiten duzu.

Etorkinek euren elkarteak sortu zituzten eta eurekin lanean hasi nintzen. Alderdi sozialdemokratan sartu nintzen eta alemaniar nazionalitatea eskuratu nuen. Etorkinek ezin zuten botoa eman eta nik eurek ahotsa izatea nahi nuen. Nurembergen lan egiten nuen eta bertako etorkinak altxatu egin ziren, diskriminazioa zela eta. Bozeramale izendatu ninduten eta Udalak Atzerritarren Kontseilua sortzen uztea lortu genuen. Bertan nazionalitate guztiek euren ordezkariak dituzte.

Zer gehiagotan aritu zara?

SPD alderdian ez ezik, suhiltzaileen elkartean eta kiroldegian buru-belarri sartu nintzen. Gainera, duela 28 urte antzerki taldea sortu nuen. Urtero antzezlan bat aurkezten dugu eta 6.000 euro inguru lortzen ditugu gazteen ekimeneztat. Gainera, zinegotzia naiz. Nire emaztearen jaioterrian bizi gara. Lau seme-alaba ditugu eta familia onetsia gara.

Geriatrikoko erregea

Superstizioetan sinesten dutenek poltsikoan untxi baten hanka eramateak zorte ona ematen duela diote, baina Zumarragako Lamourous-Argixao gerontologia zentrora bizi-rik dagoen animalia batek ekarri du zoriona. Untxia duela bi hilabete inguru heldu zen herrira. Adineko baten senitartekoak lorategian askatu zuen eta berehala bertako errege egin zen: solasgai nagusietako bat da eta guztiak bera zaintzeaz arduratzen dira.

Untxia, geriatrikoko lorategian.



Animaliekin harremana izatea oso ona da adineko jendearentzat. Hori dela eta, geriatrikoko arduradunak ere oso pozik daude untxiarekin. Are gehiago, zaharren artean izan duen harrera ona ikusirik, animaliterapia programa bat abian jartzeko asmoa dute. Arazo txiki bat dute, ordea: orain arteko ekimen guztietako protagonistak txakurrak direnez, Zumarragan ezin izango dute beste toki batzuetako esperientziak baliatu. Untxiei buruzko informazioa eskuratu eta programa berritzailea bultzatu beharko dute.

Lamourous-Argixao zentroko psikologoak, Virginia Marcosek, terapia berri hau eraikineko toki berean abian jarri dutenari bat egingo zaiola dio. Dagoeneko martxan dagoena lorategi terapeutikoa da. "Letxugak, tipulak, porruak, lekak eta kalabazak ditugu, besteak beste, eta taldetxo bat baratzeko lanez arduratzen da". Lorategia paseatzeko ere erabiltzen dute. "Egia esan, eguraldi ona egiten duenean, primeran egoten da bertan".

Orain, geriatrikoko erabiltzaileek pisuzko beste arrazoi bat dute patiora irteteko: untxia, alegia. “Adinekoak oso gustura daude berarekin. Batzuek azenariorak ematen dizkiote jateko, beste batzuek baratzean landatuta ditugun barazkiekin nahikoa duela diote... Joan zen astean bero handia egin zuen eta bere osasunagatik oso kezkatuta zeuden. Ura eraman zioten, freskatu zedin. Untxia hemengoentzat oso onuragarria dela argi dago”, azaldu du Marcosek. Aipatu bezala, dagoeneko animalia badutela baliatuz, zentroko arduradunek animalterapia delakoa abian jartzeko asmoa dute. Matia fundazioak esperientzia du jada, duela urte eta erdi inguru terapia hau



Araceli Garcia, untxia laztantzen.

Untxiak zaharren artean izan duen harrera ona ikusirik, animalterapia programa bat abian jartzeko asmoa dute

bere beste zentro batean martxan jarri baitzuen: gutxituekin lan egiten duen Donostiako batean, hain zuzen ere.

Bertako koordinatzaileak, Ana Orbegozok, maskotentzat janaria egiten duen Affinity enpresarekin hitzarmena sinatu zutela eta Golden Retriever arrazako txakurra helarazi zietela aipatu du. “Zentroan daudenak arduratzen dira animalia zaintzeaz eta berarekin duten hartu-emana oso onuragarria da arazo emozionalak dituztenentzat: txakurrare-

kin espontaneoagoak dira, berarekin duten harremanean minusbaliotasunak ez duela eraginik izango baitakite. Denbora-pasarako eta estimulaziorako ere oso aproposa da”.

Orbegozok animalterapia garatzeko animaliarik onena txakurra dela dio. “Asko ikasten dute eta feed-back delakoa beste espezie batzuekin baino handiagoa eta hobea da”. Dena den, Zumarragan gertatzen ari dena ikustea besterik ez dago, untxiak ere animalterapiarako egokiak direla ondorioztatzeko.

Ekaineko azken ostegunean eguraldi bikaina egin zuen eta agure asko lorategira irten ziren: batzuk paseatzeko eta besteak eguzkia hartzeko. Istorio honetako protagonista sastraka artean ezkutatuta zegoen. Lorazainak eta bertako bat bisitatzera joan zen herritar bat izan ziren untxia bistara ateratzea lortu zute-

nak. Berehala, bertan zeuden guztiak berari buruz hitz egiten hasi ziren.

Migel Cuestak eta Araceli Garciak “ikus-kizuna” eskaintzen diela eta “denbora-pasa bikaina” dela esan zuten. Bisitariak ere animalia-aren nondik-norakoak gertutik jarraitu ohi dituztela gehitu zuten. Dena den, eguneko zentroko erabiltzaileak dira untxiarekin harreman handiena dutenak. “Lorategira ematen duen atea dute eta eurak dira izena jarri diotenak: Pepe deitzen diote”.

Cuestak eta Garciak untxiaren zaletasunak primeran ezagutzen dituzte. “Baratzera salto egiten du eta bertatik jaten du. Letxugak eta zerbak atsegin ditu, batez ere. Jendeak ekartzen dizkion gailetak eta tostadak ere jaten ditu”. Zalantzarik gabe, bai adinekoentzat eta baita untxiarentzat ere, elkar ezagutu izana onuragarria izan da.

Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak



Argazkia: Alex Areizaga/Goierriko Hitza.

IRAKURRIENAK

1. Pagoeta eta Isabeleko bidegurutzean aldaketak izango dira.
2. Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak 2009.
3. Amaia Iturriotz Euskal Herriko txapeldun
4. Pello Gonzalezek eta Jabier Oterminek EA utzi dute.
5. Ikerne Badiola EAKo bozeramailea izango da Gipuzkoan.
6. Hasi dituzte Gaztelekuren 7. urteurreneko ospakizunak.
7. Atzoko hauteskundeek utzitako ajea.
8. Altsasuko Sunsundegui enpresako langileek protesta egingo dute Urretxun.
9. Urretxuko eta Zumarragako kaleen garbiketaz arduratzen diren langileak greban dira.
10. Erromeria eguzkitsua Urretxun.

OTAMOTZ TELEBISTAN AZKENAK


- Isabeleko bidegurutzeko zebrabidea.
- Sanjoanetako erromeria.
- San Joan sua.
- San Joan arbola jartzea.

- Altsasu: Amaiaren agurra.
- San Joan 3x3 saskibaloitxapelketa.
- Zumarragako Txokoak erakusketa Zelai Ariztin.
- VII. Auto Klaskikoen erakusketa Zumarragan.
- VII. Merkataritzaren Astea.
- XXX. Dantzari Txiki Eguna Urretxun.
- Txirindularitza zaletasuna sustatzeko festa.
- Udaberriko kontzertuak.
- Barbara Stammel-en *Pertsonaiak* erakusketa.
- Secundino Esnaola Musika Eskolako dantzariak.
- Trinitate eguna Oletan.
- Gazteleku: zazpigarren urteurreneko ospakizunak.
- Piedad kaleko urbanizazio lanak.
- El Salvador auzoko jaiak 2009 (2 bideo).
- Eskualdeko IV. Trena-Bizikleta jaiak.
- Antioko interpretazio zentroaren aurreproiektua aurkeztu dute.
- Realeko jokalariaik autografoak sinatzen.
- Beitia mendi martxa 2009 (4 bideo).

INKESTAK

Sanjoanetan Santa Barbarara igotzeko ohiturarik ba al duzu?

- Bai: %57
- Ez: %43



1957

Lagunarteko merienda


Hona hemen herriko lagun koadrila batek merienda batean ateratako argazkia. Goian: Jose Antonio Zabaleta, Manuel Telleria, Manolo Urrestarazu eta Jose Mari Azkarate. Behean: Manuel Guridi *Etxetxo*, Ramon Zabalo *Bisco* (txirrindulari profesionala izandakoa) eta Marcos Zabaleta.



Gorka Alarzia: Urretxuko saskibaloia jokalaririk ibiltaria

Gorka Alarzia saskibaloia jokalaririk urretxuarrak Gipuzkoako bigarren talde indartsuenean, Azpeitiko Lan Mobel-Iraurgin, jokatu du denboraldi honetan. EBA ligan denboraldi bikaina osatu dute eta LEB mailara igotzeko partidak jokatu dituzte. Alarziak esperientzia "gogorra" izan dela, baina merezi izan duela dio.

Gorka Alarzia, Urretxuko Aldiri kiroldegian.



Nolatan kirol zaletasuna? Umetatik?

Bai. Txikitan pilotazalea nintzen. Pilotaleku gainean bizi nintzen eta eguna pilotan jokatzeko ematen nuen. Koadrilakoek saskibaloian jokatzeko zuten eta eurekin hasi nintzen. Ni naiz jarraitzen duen bakarra.

Zer eskaini zizun saskibaloia?

Koadrilakook, ikastolatik irten eta saskibaloian jokatzeko gurekin. Orduak eta orduak eman genituen. Oso ondo pasatzen genuen eta jarraitzea erabaki nuen. Urmek taldean 12 ginen eta guztiok koadrila berekoak. Hortik Beasainera joan nintzen eta, ondoren, Goierri taldean denboraldi bat eman nuen. Urretxutik Arrasatera joan nintzen eta, azkenik, handik Azpeitira.

Zenbat denboraldi eman dituzu talde bakoitzean?

Berandu hasi nintzen saskibaloian: 15 edo 16 urterekin. Urmek taldean bi denboraldi eman nituen, Beasainen zazpi bat, Goierri bat, Arrasaten lau eta Azpeitian bat.

Goierri oso gutxi jokatu duzu.

Urmek taldetik Goierriera salto egiten genuen, baina garai hartan Chico-eta zeuden lehen taldean. Ez nuen lekurik. Beasainetik deitu zidaten eta Jon Lekuonarekin batera bertara joan nintzen. Beasainen eman ditut urte gehien eta bertan oso gustura egon naiz. Han ere koardilatxoak ditut: taldekide ohiok oso harreman ona dugu eta oraindik ere elkartu egiten gara.

Zergatik joan zinen Arrasatera?

Bertakoek Aretxabaletara bizitzera joan behar nuela jakin zuten eta deitu egin zidaten. Lau urte eman nituen bertan, oso gustura. Beasaingo taldea eta Arrasatekoa maila berean zeuden, baina goierritarrekin jaitsiera fasea jokatzen nuen eta Debagoienakoekin igotzea fasea. Iaz lehenengoak gelditu ginen eta EBA mailara igotzeko eskubidea eskuratu genuen. Diru faltagatik ez ginen igotze. Saskibaloia uzteko asmoa nuen. Izan ere, EBA ligan jokatzeko aukera izatea eta diru arazoengatik ez jokatzeko etsigarria izan zen. Orduan, Azpeitikoek eurekin jokatzeko eskaini zidaten. Pozik egon naiz.

Ilusioa egin dizu EBA liga ezagutzeak.

Hala da. Izan ere, horrenbeste urtetan puntan ibili eta gero, Arrasateko taldeari maila txikia gelditzen ari zitzaien. Pena horrekin gelditu naiz: ez dut jakingo Arrasatekoekin EBA mailan nola ibiliko ginen.

Zer moduz Azpeitian?

Sekulako taldea osatu du eta jokatzeko aukera gutxi izan dut. Dena den, gustura ibili naiz. Denboraldian zehar 12-13 minutu jokatu ditut partidako, baina igotzea fasean apenas jokatu dut. Bronkoneumonia izan dut denboraldi

amaieran eta bi aste eman ditut entrenatu gabe. Igotzea fasean ahul samar heldu naiz eta hiruzpalau minutu bakarrik jokatu ditut partidako. Bigarren basea izan naiz, baina lehen basea taldeko jokalaririk garrantzitsuena da: Ibargutxi donostiarra jokalaria bikaina da.

Zer zion entrenatzaileak?

Bigarren basea izango nintzela esan zidan, argi eta garbi. Izan ere, Ibargutxi Euskadiko selekzioarekin aritzen da, Bruesarekin entrenatu du, iaz LEB ligan jokatu zuen...

Egindako lanarekin gustura al zaude?

Bai. Rol aldaketara egokitzea kosta egin zitzaidan, Arrasaten 40 minutu jokatzera

“Taldekide batzuek datorren urteko kontratua jokoan zuten eta nahiago nuen eurek jaurtitzea”

ohituta bainengoen. Azpeitian 13 minutu bakarrik jokatu ditut partidako eta ezin izan dut nahi bezainbeste jaurti. Partida askotan ez dut jaurtiketarik egin. Izan ere, niretzako saskibaloia zaletasun hutsa da, baina taldekide batzuentzat ogibidea da. Batzuek datorren urteko kontratua jokoan zuten eta nahiago nuen eurek saskiratzea.

Salto handia nabaritu duzu, beraz.

Dirua tartean dagoenean, mentalitatea aldatu egiten da. Orain arte maila amateurretan aritu naiz: lagunarteko giroan.

Denboraldi honetan maila semiprofesionala ezagutu dut.

Dena den, zeure burua maila horretan jokatzeko gai ikusi duzu.


Talderik onenean egon naiz, base onenarekin. Jokatu ditudan minutuak ondo jokatu ditut. Talderen batean lehen basea izango nintzen. Dena den, 31 urterekin, horretarako berandu nabil.

Zer asmo dituzu?

Ez dut Azpeitian jarraitu behar. Errotulako tendoian gaizki dut eta traumatologoak, orain arteko moduan jarraituz gero, hautsi egingo dudala esan dit. Lesio larria da eta ez du arriskatzea merezi. Beharbada Gipuzkoa mailako talderen batean jokatuko dut, baina astean behin bakarrik entrenatuz. Nahiko erreta bukatu dut, bidaia luzeak izan baititugu eta ia egunero entrenatu baitugu. Lanetik irten eta gero, Azpeitiara joan behar nuen. Etxera 23.00ak pasatxo heltzen nintzen eta hurrengo egunean 5.15ean jaiki behar nuen. Oso gogorra izan da, baina probatu egin nahi nuen. Orain, umearekin eta emaztearekin etxean egoteko gogoak ditut. Dena den, denboraldi guztiak erreta bukatzen ditut eta irailerako jokatzeko gogoak izaten ditut.

Nola definituko zenuke zeure burua?

Lehen azkarra nintzen, baina adinarekin abiadura galdu dut. Dagoeneko zakur zaharra naiz: falta asko probokatzen ditut, garai batean baino gogorrago defenditzen dut eta erasoan argi dut nork nahi dudana jaurtitzea. Lehen baino buru gehiagorekin jokatu dut. Sekula ez dut tiro bikaina izan, baina asko bota izan dudanez, sartu izan dut. Tiro libreetan ona naiz. Falta asko probokatzen ahalegintzen naiz eta hala lortzen ditut puntu gehienak.



Alex Areizaga

Informatika

Fitxategi handiak bidaltzeko

Askotan fitxategi handi bat sare bidez norbaiti bidaltzeko beharra suertatzen zaigu. Epostek ahalmen mugatua izan ohi dute zentzu honetan, baina Interneten badaude hau konpontzeko tresnak. Horietako bat *Megaupload* da. Programa honek, sarera fitxategi handiak igotzeko aukera ematen digu, eta era berean, guk nahi dugun pertsonari fitxategi hau jaisteko helbidea ere bidaltzen dio emailaz. Eta www.megaupload.com webgunean sartuta egin daiteke hori. Hasiera batean fitxategiak sarera igotzeko aukera agertzen zaigu, baina *advanced* aukeran sakatuta, fitxategia bidali nahi diogun pertsonaren emaila jar dezakegu, edota hainbat email.



Izaro Soraluze

Osasuna

Errezeta elektronikoa eta 'Ona'

Errezeta elektronikoak gaur egungo papezko errezeta ordezkatu du. Medikuek datu base batean pazienteak behar dituen medikamentuak sartuko ditu eta pazienteak farmazian eskuratu ahal izango ditu inolako paperik aurkeztu gabe *Ona* osasun txartel elektronikoa berriarekin. Sistema honekin, Osakidetzak fidagarritasuna, bizkortasuna eta gaixoarekiko arreta hobetu nahi ditu. *Ona* txartelak, guztiok dugun Osakidetzako txartel urdina ordezkatu du. 16 urtetik gorako edonork eskatu ahal dezake oso erraz eta doan Eusko Jaurlaritzako egoitza nagusietan, osasun zentroetan edota www.euskadi.net/ona gunean zehazten diren lekuetan. Txartel berri honek hainbat kudeaketa modu eroso eta erraz batean egiteko aukera emango digu, etxetik bertatik (ordenagailua egokitu behar da, informatika dendetan eros daitekeen irakurgailu bat instalatuz) edo leku publikoan dagoen ordenagailutik. Honela, medikuaren txanda eskatu, mediku aldatu eskatu, bigarren mediku baten iritzia eskatu... egin ahal izango dira osasun zentzora joan edo deitu beharrik gabe.

Zubi bat espaloian



Valladoliden espaloiek estuak dirudite zinez larunbat arratsaldeetan. Milaka begi saltarinak bailiran orain hona, gero hara. Supituki nireek zureekin tupust egin dute. Zer diren begiak. Mundua ikus dezazun eta munduak ikus zaitzan.

Bi kanika berde hiriaren zurtasunean, 318.461 arimaz osaturiko bakardadean. Bi eguzki berde esan behar nuen, baina ez darizu distira handirik. Berdearena ere kentzekotan egon naiz, esperantza zer den dakizunik duda egiten dudalako. Alabaina, ez dut gezurrik esan nahi; berdeak dituzu begiak eta negar egin berri duzu.

Konplizitateak zubi bat sortu du bion begi-ninien artean: kristalezkoa edo harrizkoa, ez nago ziur. Zubiari esker nigana iristen imajinatu ditut zure mutil-lagun kabroia, zure ama zena, zure neba atzeratua, zure aita alkoholi-koa, zure amonaren alzheimerra... Ontzi forman elkartu ditut eskuak, zubitik datozkidan hipotesi ibiltariak litro

banu malko uzten baitute nire gain. Astunak dira malkoak. Ez dakit, berun bihurtzeko abildade berezia daukate.

Nekatu egin naiz, ahul sentitzen ditut besoak. Kolpez lurrera isurtzen utzi ditut zure malko guztiak, hatzeko katilua bitan zatitu dudalarik. Lotsatuta, ez dut zubiari eusten jakin. Klasss! Bai, kristalezkoa zen.

Malkozko ibai bat espaloian, zubirik gabea. Supermerkatua. Zakur bat. Amona bat autobus geltokian. Oraindik bereiz ditzaket zure pausoak urrunean. Lepoa biratu dut. Aldapan behera doana ni naizen arren, ibaia zure atzetik doa. Badakit malkoak lurrundu arte eskuetan mantendu izan banitu orain ez zenukeela ibai bat itsatsirik edukiko itzalaren orde. Nork du, ordea, hurkoaren arazoak lurruntzeko beharra? Lurruna ipuin bat da eta ibaiak izoztu egiten dira.

Amaia Iturriotz

Aitor Lizarazu

Eitzagako Aitor Lizarazuk ikastolan eta lizeoan ikasi zuen, Goierri lanbide eskolara joan aurretik. Bertan, Batxilergo Tekniko Industriala ikasi zuen. Udan tailerretan lan egiteko "zortea" izan zuen eta horretarako aukera aurrerago ere izango zuela pentsatu zuen. Hala, irakurtzea gustatzen zaionez, Gasteizera joan zen Euskal Filologia ikastera. Handik bueltan, Lazkaoko Maizpiden eta Arrasateko euskaltegian lan egin zuen. Egun, Zumarragako Udaleko Euskara teknikaria da. 'KK in'zona' irratiko kolaboratzailea eta bertso eskolako kidea ere bada.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Arotza. Askotan izan naiz Txiribiri elkartean izena emateko tentatuta.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Bizikletan bidaiatzea, mendira joatea, korrika egitea, lagunekin ibiltzea, bertsolaritza, ingelesa ikastea, irratian ibiltzea...

Bizitzeko toki bat?

Gabiria. Amona bertakoa da eta oso gustura joaten naiz bere baserrira.

Gustuko irratsaioa?

Boulevard eta *Levando anclas* entzutea gustatzen zait. Mariano Ferrer ere entzuten nuen.

Gustuko bertsolaria?

Andoni Egañarekin aluzinatu egiten dut oraindik.

Gustuko esataria?

Xabier Usabiagaren komunikatzeko era eta naturaltasuna gustatzen zaizkit.

Ileheriak ala beltzaranak?

Ileheriak, beltzaranak, ilegorriak...

Egindako azken oparia?

Aitari hiru mendi ibilaldi agindu nizkion eta dagoeneko Udalaitzen izan gara. San Donatora eta Anbotora joateko asmoa ere badugu.

Eta jasotakoa?

Arrebak oparitutako korrika egiteko mallak.

Data bat?

Abuztuaren 7a. Garazi iloba iazko egun horretan jaio zen.



Neska eta mutil izen bana?

Itziar eta Patxi, gurasoenak.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Igandeetan *Berria* erosten dut eta astegunetan *Hitza* irakurtzen dut. Bestelakoan, iristen zaizkidan guztiak begiratzen ditut: *Gara...*

Gustuko telebista saioa?

Heroes telesaila jarraitzen ari naiz. Dokumentalak ere atsegin ditut: bidaiei buruzkoak, *Documentos TV...*

Bereziki gorroto duzuna?

Salsa Rosa eta antzerakoak. Baita *Goenkale* eta bera bezalakoak ere.

Liburu bat?

Alvaro Neil idazlearen *Con un par*. Munduari bira ematen ari da eta liburu honetan Afrikan emandako hiru urteen berri ematen du.

Pelikula bat?

Atzo, aspaldiko partez, *Antes de que anochezca* ikusi nuen, Javier Bardemena. Gustatu zitzaidan.

Soinu bat?

Flautarena, pelikuletan eta dokumentaletan.

Usain bat?

Belar moztu berriarena. Eguerdietan, berriz, bazkariarena. Lehen, etxera sartu orduko, ama prestatzen ari zena asmatzen nuen.

Janari bat?

Arroza.

Ura ala...

Ura eta garagardoa, *lejia...*

asirauto



Mugitegi industrialdea, URRETXU

Telf. eta fax: 943 72 59 22

Mugikorra: 659 67 89 79



Ford Focus 1.6 TDCI 90CV - 2006



Nissan X-Trail Sport 2.2 DCI - 2002



BMW 530D 218CV - 2005



Peugeot 206 1.4 HDI - 2002



Opel Corsa 1.3 CDTI - 2005



Audi A4 Avant 2.5 TDI Tiptronic - 2004



Peugeot 307 2.0i - 2003



Nissan Qashqai 2.0 DCI 150CV - 2008



Seat Leon TDI 105CV - 2006



Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Legazpiko Olazabal Institutuaren ondoan
6 chalet adosaturen eraikuntza eta salmenta

Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak